

Kukua oparotasunarekin lotu izan da Euskal Herrian. Eta badaude hori baieztatzen duten hamaika atsotitz. «Kukuaren soinua adituz gero, poza», dio batek; «kukuaren hotsa, zahararen arnas berritzea», beste batek.

Hegazti berezi horrek -bere arrautzak besteren habian jartzen ditu- negua Afrikako hegoaldean pasatzen du, eta Europara bueltako bidaian, oraintxe pasatzen da gure herritik, martxoaren erdialdetik bukaera aldera. Norbaitek entzungo zuen haren kantua azken egunotan.

Beste atsotitz batek hala esaten du: «Martxoko ama birjine-

Sarako baserrietan ohitura zegoen upel bat udaberrira arte itxita gordetzeko

tan, kukua Erromako zubian kantari». Hartara, eta bere garaia izaki, Kukuaren Kupela ireki zuten joan den ostegunean Azkaineke Txopinondo sagardotegian, aspaldiko ohitura dena berreskuratzeko saioan.

Bertako jabe Dominic Lagadecek agertu dizkigu horren nondik norakoak. «Udaberriko Kupela deitzen genuena asmatu genuen Txopinondo sagardotegian 1999an martxan hasi ginen. Hartara, udaberria iritsi arte itxita izaten genuen upel hori, eta urtaro horretako lehen egunean zabaltzen genuen. Iaz, Sarako gure bezero batek ohitura hori ezagutzen zuela eta beti-
danik Kukuaren Kupela deitu

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso aritu ziren kantuan Azkaineke Txopinondo sagardotegian

Udaberriak Kukuaren Kupela ireki du

BERTSOAREN JIRAN



Kukuaren Kupelako sagardoarekin busti zuten zintzurra Egaña eta Lizasok -atzealdean- gero kantuan aritzeko. Jerome LADUJHE

bere izena berreskuratzea erabaki dugu aurtentzen».

Mixel Urbistondo da Kukuaren Kupelaren ohituraren berri eman duen saratarra. Bera umea zenean, Sarako eta inguruko herrietako baserrietan ohitura omen zegoen upel bat itxita gorde eta udaberria has-tearekin batera irekitzeko. Oparotasunaren seinale zen hori egitea; negua pasatzeko adina

kitzeko moduan ziren seinale. Ohitura horrexen nondik norakoak agertu zituen Mixel Urbistondok joan den ostegunean afarian, eta, ondotik, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso aritu ziren bertsoan.

50 bat lagun bildu ziren Txopinondoko hitzordura, gehienak Hego Euskal Herritik joandakoak. Saio ederra osatu zuten Egaña eta Lizasok, eta, nola

iraunkorra izan zen bertso-tarako gai nagusietakoa. Horiek hala, eta egoerak eskatuta, Kukuaren Kupela Bakearen Kupela izenarekin bataiatu zuten bertsolariak. Goizaldeko 1.00a arte iraun zuen gau festak, eta lehenengoa izanagatik azkena ez dela izango oso garbi zeukaten Txopinondoko jabeek saioa bukatzerako.

«Kukuaren Kupela urteroko ohitura izango da gurean. Gaua

ederki joan zen eta errepikatzea merezi du», agertu zuen Dominic Lagadecek.

Horretarako, errepikatze-alegia, arrazoiak sobera dituztela gaineratu zuen. Batetik, udaberrian irekitzeko upel bat gordetzearen kontuak sagardozale asko tentatzen duela konturatu dira urterik urte. Bestetik, Ipar Euskal Herrian euskara berpizteko saioan ohitura hau

Txopinondo sagardotegian aspaldiko ohitura berreskuratu dute

mesedegarria izango dela garbi daukate Txopinondon. Eta bertso saioak tiradizoa dauka euskararen maitaleentzat. Eta, azkenik, enpresa gaztea izanik, jendea erakartzeko halakoak antolatu behar dituztela uste dute Txopinondo sagardotegi-koek.

Atsotitzen bideari jarraituz -eta norbait aspertzeko arriskua dagoela jakinda- «Kukuak bere izena kantatzen» duela dioena ere bada. Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok bere izenaz gain kantatzeko asko daukatela maiz erakutsia dute. Txopinondon berretsi zuten abildadea. •

Amagoia MUJICA